

Balio Proposamena

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure herriko ekonomia sustatu nahi dugu, langile autonomo eta biztanleen bizitza erreztu nahi dugu produktuak eta zerbitzuak ahalik eta azkarren saldu eta erosteko. Konpondu nahi dugun arazo nagusia Tolosarrak beraien herrian dituzten dendetan ez erostea da, herritar asko Tolosatik kanpo joaten dira erosketak egitera, bai janaria edo arropa erosteko, Donostia edo supermerkatu handietara joatera daude ohituta. Gure herriko dendetan erostearazten honen ekonomia sustatu nahiko genuke.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure helburu nagusia Tolosako herritarren egunerokotasuna erraztea denez, adin guztietarako baliagarria den zerbitzu berri bat sortu nahi dugu. Zerbitzua doainik izango da eta horrela herritar guztien eskura egongo litzateke.

Enpresarentzako irabaziak erabileraren arabera izango dira, hau da, erosketa bakoitzeko ehuneko jakin bat gure irabaziak izango litzateke. Prezio edo erosketa kopuruaren arabera irabaziak handiagoak izango dira.